

Euskal nazioaren bilaketa gure ondare(et)an Nazioen eta izateen berrikusketa egungo eztabaidetan

Maialen Etxebarria
Filosofian graduatua

Naziogintzari lotutako gogoeten gaurkotasunaz: *Historia, arraza, nazioa*

Joxe Azurmendiren *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk* liburua dut abiapuntu gaurkoan. 2014an argitaratutako obra hori filosofia ikasketak hasi berritan ezagutu nuen. Badakit ere Azurmendi obra horren bitartez ezagutu nuela autore gisa. *Historia, arraza eta nazioa*: hiru kontzeptuok filosofiaren aldetik hain esanguratsuak izateaz gain, eta teorikoki lan esanguratsua iruditzeaz gain, niretzako hurbilekoa zen autore baten bibliografia oparoa ezagutzeak kuriositatea piztu zidan.

Kontzeptuon euskal ikuspegi zabalen bat bilatzekotan nengoen; euskal historiaren, arrazaren eta nazioaren definizio argien aurkikuntza, ezaguna egingo zitzaidana hasieran nuen filosofiaren ikuspegi emankor eta orokor horretatik. Beraz, *Historia, arraza eta nazioa* Renanen moduko autore baten nazionalismoaren ikuspegiaren ingurukoa zela konturatzea Azurmendiren obraren eta testuinguruaren kokapena egiteko aukera izan zen. Izan ere, normalean ez da Renanen modukoko autoreez hitz egiten nazionalismoaz gainetik ari direnen artean. Irudi dezake, baita ere, nazionalismo frantziarrak edo alemaniarrak zerikusi gutxi dutela euskal lurraldeetan alde batetik eta bestetik baliatzen den nazionalismoarekin. Beraz, zer interes piztu dezake obra horrek nazionalismoaren eztabaidaren haritan?

Master Amaierako Lanerako ikerketa-lanean hasi bezain pronto, *nazioa eta kultura* agertu ziren nire norabidean. Hain zuzen, espazio fisikoa antolatzeko moduak edo moduek euskal identitatearen eta kulturaren izan dezaketen eragina da lan horren ardatz nagusia. Beraz, euskal lurraldeetako hirigintza eta lurralde sakabanaketa erduek naziogintzan eta kulturgintzan izan ditzaketen eraginak ulertzeko, naziogintzaren ulerkera historikoa bereganatzea beharrezkoa da, eta hori espazioen eraikuntza eta sakabanaketarekin harremantzea. Bereziki garrantzitsua izango da, bada, adibidez, ondare fisikoari erreparatzea. Ez hori bakarrik, ulerkera horiek *nazioa* eta *kultura* nozioen argitan egin behar dira, horiek izango baitira euskalduntasunaren inguruan aztarnaren bat emango duten kontzeptuak.

Beraz, ezinbestekoa zitzaidan *euskaldun* eta *kultura* deritzon hori argitzea, baina baita nazio deritzon hori ere. Ibai Iztuetak *Euskal kultura vs. Cultura vasca* entsegu

esanguratsuan dioen moduan, diskurtsoaren analisia harreman historiko, kultural eta sozial zabalagoetan kokatzen badugu, boterearen eta ezagutzaren egiturak agerira ekartzeko parada dago (Iztueta 2015). Euskal kulturaren auzia hizkuntzaren gatazkan kokatzen duen ikerketa horrek diskurtsoaren analisisian bertan begirada kokatzeko garrantzia azpimarratzen du.

Beraz, esan daiteke, analisi horretatik asko dagoela *Historia, arraza, nazioa* liburua aztertzeke gogoan. Renanen garaian loratzen diren nazionalismoaren inguruko topiko eta ideia horiek historia, arraza eta nazioa harilkatzen dituzten ikusmoldeak argitzeko kontzeptuak eta ikuspegi historiko oso gaurkotua eskaintzen dituzte, baina azterketa kritiko horretatik gaur egungo ekarpen berriak bideratzeko aukera ere ematen dute.

Azurmendik *Espainolak eta euskaldunak* liburuan dioen gisan:

Euskaldun ona, espainol edo frantsesaren akzidente eta osagarri huts dena, da. Euskaldun izatea, euskaldun izatearekin aski dela, hori ez da kabitzen, Pariseko eta Madrileko jauntxoek izpirituzabal eta unibertsal deklaratu duten horretan. Hori ez da orain bakarrik horrela. Historiak jarri du horrela. Eta euskaldunek berek dute falta, ez Euskal Herriak. Historiak ekarri gaitu gauden puntura. (Azurmendi 1992: 559)

Renan eta ‘nazio’ nozioaren inguruko begirada kritikoak

«Historiak ekarri gaitu gauden puntura» hori, euskal historia nola ezagutu eta ulertu izan den horren aurrean, gure buruak hutsunearen aurrean kokatzeko itauna izan liteke. Hain zuzen, euskal historiaren hutsune horretan historiaren kontra doan horren aldarrikapena suertatzen da; beraz, beharrezkoa da orain arteko historian kabitu diren hainbat perspektiba berrikustea eta, jakina, historia hori nondik eta nola egin den berrikustea. Horregatik, nazionalismoaren auziari dagokionean, behintzat, egokia dirudi *Historia, arraza eta nazioa*-ri dagozkion gogoeta batzuk ekartzea, Azurmendik gatazka horren inguruan beste hainbat obra esanguratsu dituen arren, ahaztu gabe aurkezpen honetan aipatuko ez direnak, asko dira eta.

Historia, arraza eta nazioa liburuan paradigma modernoak nola jaso diren kritikatzan da, baita euskal pentsamenduan bereganatutakoak ere. Renanen (1823-1892) pentsamendua ikertzen da batez ere; horren nazionalismoaren eta arrazaren ikerketak garaiko pentsamenduan eta nazionalismoaren inguruko gatazka eta ikuskeretan kokatu nahi dira, horiek berrikusteko eta Renanengandik abiatuz topiko modernoak nondik datozen ere argitzeko.

Renanen garaiko nazioen eta arrazen, baina baita historiaren inguruko gogoetak mahaigaineratzeak eta kontuan izateak arrazoi asko ditu: alde batetik, Frantziaren nazionalismoaren ikuskerak ulertzeko funtsezko autorea da, Europako beste txoko askotan eragin nabarmena izan zuena (Azurmendi 2014). Horrez gain, nazioaren inguruko bere ikuspegiak nahasiak suertatzen diren arren, Azurmendik argi erakusten du nazio-arraza-historiaren erabiltzeko moduaren atzean dauden interes politikoak... Renanen pentsamenduaren eta pentsamendu europarraren azterketa landuak eta eztabaidari egindako Azurmendiren ekarpenak euskal kasurako interes berebizikoak suertatzen dira.

Hain zuzen, Renani eta Frantziari aitortzen zaion nazionalismo zibiko hori Alemaniari aitortzen zaion nazionalismo etnikoarekin alderatzen da. Frantsesa lurralde berean bizi diren gizon-emakumeen borondate komunean sorturiko nazioa litzateke; nazio alemaniarra, ordea, odolean, hizkuntzan, ohituran oinarrituta eraikitzen da (*ibid.*). Nazioaren objektibotasuna eta subjektibotasunari dagozkion alderdiak ere tankera horretakoak dira. Nazionalismoaren kontzeptuok, ordea, akastuna den anbiguotasunean oinarrituta daude.

Alde batean kultura (etnia), bestean Estatua (politika); eta gu bietan bazkide, jeneralean intentsitate diferenterekin batean edo bestean. ‘Nazio’ modernoa esaten dena, eta Nazio-Estatua, zerki kulturala eta politikoa da bere denboran. (*Ibid.*: 26)

Hasiera batean, Renanen pentsamendua arrazari lotuta ageri zaigu oso. Arrazak dira historia ulertzen lagunduko digutenak, eta horren arabera ulertu behar da nazioen agerpena. Guzti hori arrazen arteko mailaketa egiteko ere badarabil Renanek, eta, azken finean, Frantziaren batasun hautsezinaren defentsa egiteko. Nazioetan ager daitekeen adierazpen oro Renanek arraza kategoriatan ulertzen ditu Azurmendik argi azaltzen duenez, hizkuntza eta arraza ere bateratu egiten ditu. Hain zuzen, «doktrina guztia historiaren bere filosofia orokorrean akoplatu du» (*ibid.*: 125). Bide horretatik, Renanen nazioaren, historiaren eta arrazen pentsamenduaren eboluzioa aztertzen du Azurmendik, erakusteko Renanen moldea arrazialista dela guztiz, garairen batean hori beste kontzeptu batzuen bidez zehazten saiatu bazen ere.

Are gehiago, Renanek Alemania eta Frantziaren arteko elkarlana –kulturaliki, batik bat– bi arrazaren arteko erlazio positibo bezala ikusten jarraituko du. Bion artean osatzen baitira giza espirituaren bi erdiak. Horrelako gogoetak beste pentsalari batzuek ere partekatu dituzte; Kantek berak, esaterako, gizakiaren jatorrizko batasuna zehazten badu ere, arraza zuria gainerakoak baino perfektuagoak delako moduko baieztapenak egiten ditu. Ez, ordea, Herder eta Humboldték. Herder arrazaren ikuspegi horien guztien kontra ageri da eta herri bakoitzaren kultura nazionala eta hizkuntza goraiatzeko, miraria bailiran. Humboldték ere arraza kontzeptuaren definizio falta azpimarratzen du, ez baitago arraza diferenteen sailkapen egokirik egiterik. Arrazak, horrez gain, ez du zerikusirik hizkuntzarekin.

Azpimarratu nahi dena Azurmendiren *Qu’est-ce qu’une nation?* (Zer da nazioa?) Renanek Sorbonan 1882an emandako hitzaldiari buruzko gogoetak dira. Hitzaldi hori, nazionalismo zibikoaren eredutzat kokatu izan da, arrazen aurreko ikuspegitik urrun. Eta hauxe bera kritikatu du Azurmendik: hain zuzen, ez dela nazioaren ikuspegi alemaniarren kontrako aitorpena soilik. Arrazen inportantzia historiatik baztertu behar delako ikuspegia, beraz, ez dago hain garbi, Renanen pentsamendua beti egon da arrazen terminoetan antolatuta. Baina ikus dezagun zer esaten duen Renanek nazioei buruz eta zer zerikusi duen horrek arrazaren auziarekin.

Renanentzat nazioa zer ez den aztertzen da lehenbizi: nazioaren agerpena politikaren ikuspegitik zerk legitimatzen duen zehaztu nahi du Renanek, hain zuzen Alsazia baita jokoan dagoena. Eskubide nazionalari buruz ari gara hemen. Beraz, nazioa ez du egiten «dinastiak, arrazak, hizkuntzak, erlijioak, geografiak». «Ez da nazioa bere baitan zer den definitzea bilatzen, baizik hura erlazio politiko-juridiko» (*ibid.*: 371-375)

gisa nola ulertu behar den. Hain zuzen, historia ulertzeko garrantzitsuak izango diren hainbat alderdi (hizkuntza eta arraza, besteak beste), politikaren auzian ez dira baliagarriak izango. Horrenbestez, garrantzia, orain, nazioaren existentzia justifikatuko duten nazioaren alderdi objektiboak eta subjektiboak ezartzean datza.

Zer ulertzen du, bada, Renanek nazio gisa? Zer zehaztapenek eskaintzen digu nazio bat aitortzeko eskubidea? Historiak objektibotasuna ematen dio nazioaren justifikazioari, eta gaur egungo nahimena, berriz, alderdi subjektiboari dagokio. «Nazioa arima bat da, printzipio espiritual bat» (*ibid.*: 377) Renanentzat, iraganeko eta oraingo elementuek osatzen dute printzipio hori, baina, Azurmendik dioenez, Renanek airean uzten du nazioaren konkretutasuna ematen duten galderen erantzuna. Besteak beste, non nazioa gauzatzeko borondate horren konkretutasuna agertzen den.

«Renanen nazioa metafisikoa da», diosku Azurmendik. Arima bat dago, gizartearen inorena ez dena, barruan ezer ez daukana; «edo berak ezer aitortu ezin diona errege eta nobleza naziogileen arrazoian berriz erori gabe» (*ibid.*: 379). Renanek, iturri ezberdinetatik edanez, nazioaren kontzeptu nahasi bat dauka, eta *arima* gisako metaforetan errefuxiatzen da, horri garapen metafisikoa emanez.

Renanen arimak, bestalde, hiru fakultate ditu: oroimena, sentimena eta nahimena. Patriotismoaren edo sentimendu nazionalaren elementua ere gehitzen du; sentimendu espezifiko horrek egiten du printzipio nazional eta sentimendu nazional horren konkretutasuna: eguneroko plebiszituaren oinarritzen du. Alegia, «Nazio baten existentzia eguneroko plebiszitua da, indibiduoaren existentzia bizitzaren baiespen betiraunkorra den eran» (*ibid.*: 377). Kontzientzia nazional hori, ordea, Azurmendiren arabera, ez da herriko jendearen kontzientzia nazionalarekin parekatzen dena, hori badirudi ere. Hau da, plebiszituaren ulerkera ez da demokratikoa.

Nazioaren eguneroko existentzia litzateke nazioaren baiespenaren froga edo plebiszitua. «Indibiduoaren bizitzeak haren bizitzaren baiespena adierazten du, nazioaren existitzeak haren existentziaren baiespena» (*ibid.*). Hain zuzen, norberaren eguneroko existentziak norberaren nazionalitatearen froga emango luke. Estatuaren justifikazioa banakoa-estatu segidan oinarritzen du Renanek, gehienez eguneroko bizitzako inkontzientzian edo errutinan.

Horregatik, Azurmendiren arabera, Renanena, politika mailan, «errealismo lezio bat da», bere buruari eta, bere antzera, «dilindan geraturiko intelektual frantses monarkista askori» (*ibid.*: 392), baina horren atzetik teoria moralista ezkututzen da. Ez da, ezta ere, nazioaren kontzeptu alemanaren kontrako ikuspegia, ez baitu berez alde batera uzten hizkuntzaren eta arrazaren bidetik dagoen justifikazioa. Azurmendik dioskunez, Renanen teoria ez dago nazioaren kontzeptu objektibo bat bilatzeko helburura bideratuta, Frantziaren orduko momentuko nazio-estatu zilegitasuna bilatzera bideratuta baizik. Monarkiaren presentziaren justifikazioarekin jada ezin da egin irakurketa hori, eta, beraz, Renan teoria orokor baten bilaketan hasten da.

Hala ere, akats larriagoa deritzo Azurmendik Renanen «hautazko nazioa» bereganatu egin dutela askok, irakurketa desegokia aplikatuz. Hau da, gure nazioa «hautazko nazio» horren parean jartzeko saiakerak egin dira, eta nazioa subjektibotasunari lotuta ulertu da, hizkuntza gisako ezaugarri objektiboak –ulerkera horren azterketa gitea ere beharrezkoa izan liteke– alde batera utziaz. Renanen nazioa,

ordea, estatua da, eta, beraz, ez du hizkuntzaren batasunaren edo arrazaren batasunaren inguruko argudiaketarik erabili behar. Nazioa hizkuntzaren eta arrazaren mailan kokatuta dago Renanengan, eta estatuari ematen zaio garrantzia. Alabaina, Azurmendirentzako argi dagoena da estatu eta nazio terminoen erabilpen nahasia dagoela. Horren aurrean nazioen inguruko eztabaidari ekin nahi bazaio, terminologia identifikatzea derrigorrezkoa izango da.

Hainbat irakurketa egiten ditu horren inguruan Azurmendik. ‘Irakurketa espainol batzuk’ atalean azaltzen ditu horietako batzuk, euskal panorama ulertzeko beharrezkoak izan daitezkeenak. Ortega Gasset, Primo de Rivera eta Maezturen nazio kontzeptuak arakutzen ditu bereziki, eta horrela ondorioztatzen du irakurketa hauen muina: «nazioa dagiena –‘alma’, ‘espíritu’, ‘esencia’, ‘el ser’, etab.–» dela aurkitzen dugu (*ibid.*: 444), herri-gogo –Volksggeist– moduan uler daitezkeenak, baina modu bitxian; izan ere, Azurmendiren hitzetan: «etiko-erlijiosoki sublimatua, idealen aldetik bakarrik hartuta» (*ibid.*) daude ikuskera horiek.

Kontuan hartu behar da, baita ere, aztertzen ari den nazioei buruzko ikuspegi horiek Azurmendiren nazioen ikuskeran eta gai horren inguruko beste hainbat gogoetaren inguruan eraikiak daudela. Azurmendi nazioaren inguruko ikuspegi eta premisa modernoek kritikan oinarritzen da, eta, batez ere, nolabait erdipurdi eraikitako diskurtsoaren kritikan oinarritzen du. Nazioaren eta estatuaren berdinketaren jatorriak terminologia ere zehaztu du, eta hortik ageri zaizkigu *etnia* gisako kontzeptuen erabilpenaren gaur egungo ulerpen asko. Nazioaren politikatasunari eta kulturatasunari, objektibotasunari eta subjektibotasunari definiziook zehazteko moduak ekar diezazkiekeen arriskuez ohartzen da Azurmendi.

Ondorioak

Gaur egun alde batera utzitako eztabaida dirudien heinean, kontzeptuon argitasunak eskain dezakeen garrantziaz ohartzea falta zaigu. Hain zuzen, nazioaren ikuspegiaren inguruko gogoetak, Azurmendik egiten duen gisara, bi auzi interesgarri ekartzen ditu gogora, euskal izatearen inguruan hausnartuko bada baliagarriak izango direnak. Alde batetik, nazioa, kultura eta arraza nozioen analisi bat behar da, baina analisi horrek sakontasun historikoa eskatzen du. Esan nahi da, baztertutako eztabaidak kontuan hartu gabe, hitzok erantzukizun faltaz erabiltzera bideratuta daude. Nazioa eta kultura hitzen erabilpenak zehaztasuna eskatzen du, *globalizazioa* edo *gorputza* hitzek eska dezaketena bezainbeste.

Hain zuzen, ezin daiteke globalizazioaren inguruko hausnarketa egokirik egin gaur egun kontzeptu horrek duen zama ulertu gabe (Harvey 2000). Berdina gertatzen da *nazioa* eta *kultura* kontzeptuekin: adiera anitzak izan ditzaketen hitzak dira, atzean lan teoriko esanguratsuak dituztenak; beraz, erantzukizunez erabiltzea komeni da, betiere gaur egun duten esanahi zama kontuan hartuta. Azurmendiren ekarpena, bada, esan den moduan, ezinbestekoa da bide horretan.

Interes nabarmena pizten dit, bada, nazioaren politikatasunari eta kulturatasunari lotutako gogoeta horiek nire ikerketa bidean izan dezaketen eraginak. Alde batetik,

euskal kulturaren inguruko gogoeta egiteko abiapuntuak eta erremintak dira. Nondik egin gogoeta hori? Abiapuntua, bada, nozioen argitzean kokatzen da. Azurmendik nazioaren definiziora hurbiltzen laguntzen digu, horrek dituen zailtasunak kontuan hartuta. Hain zuzen, naziogintzara hurbiltzeko bide aproposa irekitzen du, eta espazioaren antolakuntzari eta horien garapen historikoari dagozkion gako asko aurkitu daitezke naziogintzaren inguruko gogoetetan.

Bibliografia

- Azurmendi, J. (1995): *Espainolak eta euskaldunak*, Donostia, Elkar.
— (2014): *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk*, Donostia, Elkar.
Harvey, D. (2000): *Spaces of Hope*, Edinburgo, Edinburgh University Press.
Iztueta, I. (2015): *Cultura vasca vs Euskal kultura*, Donostia, Utriusque Vasconiae.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus